

i d a t z i a k

etxejabeen komunitateetako agiriak





Eskuarteon duzun liburuxka hau da Idatziak sortako bigarren idatzi bilduma. Iaz Idatziak: gonbitak, zorion agurrak, oharrak... liburuxka argitaratu genuen. Aurten, berriz, etxejabeen komunitateetako agirien bilduma kaleratu dugu. Bi liburuok helburu bera dute: euskara zabaltzen eta normalizatzen laguntzea, eta hartarako idatzi ereduak eskaini ditugu. Izan ere, geroago eta gehiago zarete euskara normal erabiltzeko ahaleginetan ari zaretenok.

Horregatik, bada, Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuetatik eskaintzen dugun hizkuntza aholkularitza zerbitzuan, aurrerapauso bat gehiago eman nahi dugu, eta zuen beharrei erantzuteko idatzi sorta hau prestatu dugu. Guztia ahalik eta modurik errazenean azaltzen saiatu gara, zuentzat eguneroko jardunean euskarari toki handiagoa egiteko tresna erabilgarria izan dadin.



Aurkibidea

Sarrera	3	5 Errekerimendua	25 - 26
1 Bilera deiak eta aktak	5 - 13	A. Etxe saltzaileak etxe jabeen komunitatearekin dituen zorrei buruzko ziurtagiria eskatzea komunitateko presidenteari	26
A. Atarikoan Batzar Nagusirako deia	6		
B. Atarikoan Batzar Nagusiaren akta	7 - 9		
C. Atarikoan bilera deia	10		
D. Atarikoan bilera akta	11 - 12		
E. Atariko batzuek Batzar Nagusi Berezirako deia egitea	13		
2 Bilerara joateko ordezkariak	15 - 16	6 Balantze ekonomikoa	27 - 28
A. Beste bati ordezkariak ematea	16	A. Balantze ekonomikoa	28
3 Jakinaraztekoak	17 - 22	7 Errotuluak	29 - 30
A. Zorren egoeraren berri ematea eta ordaintzeko eskatzea	18	A. Errotuluak	30
B. Zorrak ordaintzeko eskatzea	19		
C. Etxebizitza saldu izanaren berri ematea	20	8 Oharrak	31 - 38
D. Ordaindu gabeko kuotak erreklamatzeko demanda	21 - 22	A. Atarikoentzako oharrak	32 - 33
		B. Izena emateko orria	34
		C. Kexak idatziz biltzea	35
		D. Berokuntza instalazioaren urteko hustuketa	36
		E. Berokuntza sistema betetzea	37
		F. Ilogailua nola erabili	38
4 Ziurtagiriak	23 - 24	9 Araudiak	39 - 49
A. Etxe saltzailearen zorren egoerari buruzko ziurtagiria	24	A. Barne araudia	40 - 41
		B. Estatutuak	42 - 49
		10 Hiztegia	51 - 55
		A. Euskara-Gaztelania hiztegia	52-53
		B. Gaztelania-Euskara hiztegia	54-55

1

Bilera deiak eta aktak

- A Atarikoek Batzar Nagusirako deia
- B Atarikoek Batzar Nagusiaren akta
- C Atarikoek bilera deia
- D Atarikoek bilera akta
- E Atarikoek batzuek Batzar Nagusi Berezirako deia egitea



OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIA

Eguna: maiatzaren 14a, asteazkena

Ordua: 19:30 (1. deialdia) eta 20:00 (2. deialdia)

Lekua: Iparragirre kalea 18ko ataria

Gai zerrenda:

- Diru kontuen berri ematea.
- Euskaltel instalatzeko proposamen berria.
- Kuotak kobratzea.
- Patioko hezetasunak eta terrazetako isurbideen arazoak.
- Hobi septikoa.
- Markesina garbitzea.
- Norberak lekarkeena.

Antzuolan, 2004ko maiatzaren 6an

Presidentea

B

Atarikoan Batzar Nagusiaren akta

V
V

OHIKO BATZAR NAGUSIA

AKTA

A. Deialdia

Nork deitua: presidenteak

Eguna: maiatzaren 14a, asteazkena

Ordua: 19:30 (1. deialdia)

Lekua: Iparragirre kalea 18ko ataria

B. Gai zerrenda

- Diru kontuen berri ematea.
- Euskaltel instalatzeko proposamen berria.
- Kuotak kobratzea.
- Patioko hezetasunak eta terrazetako isurbideen arazoak.
- Hobi septikoa.
- Markesina garbitzea.
- Norberak lekarkeena.

C. Etorritakoak

Lokala	Ordezkaria
1b	Mikel Ugarteburu (4,90 partaidetza kuota)
2c	Luis Gonzalez (8,8 partaidetza kuota)
3a	Kontxi Ibarra (4,90 partaidetza kuota)
4b	Juan Carlos Perez (4,90 partaidetza kuota)
5b	Felix Agirre (8,8 partaidetza kuota)
6c	Santiago Etaio (4,90 partaidetza kuota)

D. Ordezkatuta

Lokala	Ordezkaria
Harategia	Mertxe Lujanbioren ordez Kepa Garaita etorri da (14,65 partaidetza kuota)

>>

>>

1. Diru kontuen berri ematea

Administratzaileak administrazioa hartu duenetik orain arte izandako sarrera eta gastuen zerrenda banatu du (ikus eranskina).

2. Euskaltel instalatzeko proposamen berria

Euskaltelek proposamen berri bat ekarri du instalazioa egiteko. Kablea ataritik pasatu beharrean fatxadetatik joango litzateke, ondoko atarietan egin duten moduan. Patioko fatxadatik igo, gero teilatutik eta Jon Arrospidenetik jaitsiko litzateke. Aho batez onartu da.

3. Kuotak kobratzea

Banestok bi aldiz kobratu dizkie martxoko kuotak kontua banku honetan ez daukatenei. Ondoren agindua eman zuen konpontzeko, baina banku batzuek ez dute konpondu. Beraz, oraindik dirua itzuli gabe baduzue, eman ordainagiria administratzaileari, hark bankura eraman eta itzulketa egin dezaten zuzenean.

4. Patioko hezetasunak eta terrazetako isurbideen arazoak

Bi aurrekontu eskatu dira: 600 eurokoa bat eta 300koa bestea. Horrez gain, 1A eta 1B terrazetan isurbide edo kainu-zuloak aldatzeko beste 300 euroko gastua legoke. Santiagok aipatu du orain dela 3 urte konpondu zirela eta bermea eduki behar dutela. Konpondu baino lehen aztertu gaia.

5. Hobi septikoa

Azaroan kendu zen, baina urez beteta dago une honetan. Gainera, lubakia egitean, burdina guztiak moztu zirenez, zorua beherantz joan da apur bat. Enpresari ez zaio guztiz ordaindu eta 6 hilabete barru zementuzko zoru

>>

B

Atarikoan Batzar Nagusiaren akta

>>

berria botatzeko eskatu zaio. Aurrekontua begiratzeko eskatu da, Iris enpresak putzua bete behar zuen ala ez jakiteko. Putzua harriz betetzea ala oraingo ur filtrazioa kentzeko ponpa bat jartzea komeni den aztertzekotan geratu gara.

6. Markesina garbitzea

Enpresak 50 euroko aurrekontua pasatu du markesina garbitzeko. Aho batez onartu da garbiketa bi hilean behin egitea.

7. Norberak lekarkeena**Garbiketa.**

Auzoko batzuek garbiketaren kalitateaz galdetu dute, xaboi eta lixiba usainik ez delako nabaritzen garbitzen duenean eta felpudoak ez direlako astintzen eta goiko solairuak ez direlako ondo garbitzen. Enpresara deitzekotan eta kalitate handiagoa exijitzekotan geratu gara.

Ataria konpontzea.

Urtero atarian hobekuntzaren bat egitea aipatu da: loreak, alfonbra aldatu, ate nagusia eta abar. Datorren bilerarako proposamenak aztertu eta aurrekontuak ekartzekotan geratu gara.

Antzuolan, 2004ko maiatzaren 30ean

Presidentea

Idazkaria

BILERA DEIA

Idatzi honen bidez dei egiten dizuegu gure atariko bilerara etor zaitezten.

Eguna: 2004/10/28

Ordua: 20:00

Tokia: ataria

Aztergaiak:

1. Igogailu berria jartzea.
2. Aurreko urteko diru kontuen berri ematea.
3. Kuotak igotzea.
4. Eskakerak eta galderak.

Gaien garrantzia ikusita, guztiok egotea komeni da.

Arrasaten, 2004ko urriaren 3an
Presidentea

D

Atariko bilera akta

BILERA AKTA

Nork deitua: presidenteak
Eguna: 2004/10/28 (astelehena)
Ordua: 20:30
Tokia: ataria

Etorri direnak:

Maribi Etxebeste.
Maite Arriola.
Juan Luis Cebrián.
Marian Gómez.
Luis M^a Ruiz de Eginó.
Beñat Uribarren.

Aztergaiak:

1. Igogailu berria jartzea.
2. Aurreko urteko diru kontuen berri ematea.
3. Kuotak igotzea.
4. Eskaerak eta galderak.

Esan-eginak eta erabakiak**1. Igogailu berria jartzea**

Igogailu berria jartzeko jasotako aurrekontuen berri eman die atariko arduradunak bizilagunei. Aurrekontu guztiak komentatu eta eztabaidatu dira.

Erabakia: Jaso enpresak aurkeztutakoa onartu da, prezio ona eskaintzeaz gain, saldu osteko zerbitzua ona du eta.

2. Aurreko urteko diru kontuen berri ematea

Joan den urteko sarrera-irteeren berri eman du atariko arduradunak (ikusitako eranskina). Sarrerak 10.000 €-koak izan ziren. Irteerak, berriz, 8.523 €-koak. Hortaz, kontuan izanda iaz urte hasieran 3.250 € zeudela atariko jabe-komunitatearen libretan, orain 4.727 € daude.

> >

>>

3. Kuotak igotzea

Igogailu berria jartzeko ordaindu beharreko kuotak eta epeak aurkeztu ditu atariko arduradunak. Kuotak %30 igotzea proposatu du eta bizilagun guztiek onartu dute, bik izan ezik: 1A eta 1B pisukoek. Hauek esan dute ez dutela igogailurik behar eta horregatik ez dutela ordainduko. Hori dela-eta presidentek proposatu du atariko bi horiek orain arteko kuota ordaintzen jarraitzea, baina igogailua erabiltzeko giltza jartzea. Erabakiak: lehenengo pisukoentzat izan ezik, kuotak %30 igotzea eta igogailuari giltza jartzea onartu dugu.

4. Eskerak eta galderak

Ez da egon ez eskaerarik ez galderarik.
Bilera amaituta agiri hau egin dut, zer eztabaidatu eta zer erabaki dugun jasotzeko.

Arrasaten, 2004ko azaroaren 26an

Maite Arriola
Atariko arduraduna



E

Atariko batzuek Batzar Nagusi Berezirako deia egitea

BILERA DEIA

Sinatzen dugunok —Durana kaleko 2ko bizilagunak, partaide kuota osoaren %25 baino gehiago daukagunok—, dei egiten dizugu, Batzar Nagusi Berezira etor zaitezen, 4.A etxebizitzaren jabea zara eta.

Batzar hori hil honen 14an egingo dugu, iluntzeko 7etan 1. deialdian eta 7.30etan 2. deialdian, betiko lokalean, eta gai zerrenda honekin:

1. Errentak eguneratzea.
2. Toldoak jartzeko aurrekontuak aurkeztea.

Aretxabaletan, 2004ko irailaren 4an

Izp.: Ane Miren Legorburu
Karmel Bengoa
Esteban Martinez



Oharra: bilera deitu dugu, Jabetza Horizontaleko Legeak ematen digun ahalmena erabiliz, presidenteak uko egin diolako bilera deitu zezan egin genion eskaerari.

2

Bilerara joateko ordezkaritza

- A Beste bati ordezkaritza ematea




Datorren ostiralerako, hilak 14, bilera deia jaso dut, eta ni neu ezin naizenez joan, neure eskubide guztiak M^a Karmen Axperi ematen dizkiot. Hortaz, bada, nire ordezkharitza izango du, botoa emateko eskubidearekin, gai zerrendan datozen gai guztietan.

Eskoriatzan, 2003ko irailaren 4an



Izp.: Eneko Lopez de Aberasturi
(4. A etxebizitza, 10,8 partaide kuota)

Nik, Maripi Aranalde Apellanizek (NA zk. 16.299.012), Bergarako Koldo Eleizalde kalean 14. atariko 1. A etxebizitzaren jabea izanik, Joxe Felix Payros Zudaireri (NA zk. 19.809.154) eman dizkiot ordezkharitza eta botoa, 2004ko maiatzaren 21ean izango den Ohiko Batzar Nagusian parte hartzeko.



Izp.: Maripi Aranalde Apellaniz
(2. B etxebizitza, 8,5 partaide kuota)

3

Jakinaraztekoak

- A Zorren egoeraren berri ematea eta ordaintzeko eskatzea
- B Zorrak ordaintzeko eskatzea
- C Etxebizitza saldu izanaren berri ematea
- D Ordaindu gabeko kuotak erreklamatzeko demanda

A**Zorren egoeraren berri ematea eta ordaintzeko eskatzea**

Jon Lopez Amenabar
Anboto, 3-2. B
20500 Arrasate

Arrasaten, 2003ko maiatzaren 30ean


Agur t'ardi:

Idatzi honen bidez gogora ekarri nahi dizugu, gure eskuetan dauzkagun datuen arabera, kuota hauek daukazula ordaintzeko etxejabeen elkarte honetan:


2002ko urteko kuota	50 €
2002ko urteko kuota	70 €
Guztira	120 €

Mesedez eskatzen dizugu zure egoera erregularizatzeko, eta sartzeko zor duzun diru kopurua komunitatearen kontu honetan: 1111.2222.33.4444555566.

Besterik gabe, adeitasunez, agur.



Izp.: Maripi Uribarren Arana
Etxejabeen elkarteko presidentea



B

Zorrak ordaintzeko eskatzea



Jon Lopez Amenabar
Anboto, 3-2. B
20500 Arrasate

Arrasaten, 2003ko urriaren 2an

Jaun/andre hori:


Anboto kaleko 3ko etxejabeen elkarteko presidentea naizenez, zurekin harremanetan jarri naiz, irailaren 24an egindako jabeen batzarrean hartu genuen erabakiaren berri emateko. Gure komunitatearekin duzun zorraren zenbateko osoa zein den azterturik, horren berri zuri ematea erabaki zuen batzarrak.

Honekin batera doakizu gure komunitatearekin duzun zorraren berri ematen duen agiria, idazkariak egina eta nik, presidenteak, sinatu eta ontzat emana.

Eta hori guztia Jabetza Horizontaleko Legearen 21. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Hortaz, bada, jakinarazpen hau jasotzen duzun egunaren biharamunetik aurrera 15 eguneko epean ordaindu ezean zor hori, auzibidera joko dugu, gure komunitatearen eskubideen eta interesen alde.

Zorra kitatzeko, sartu dirua kontu honetan:
0000.1111.22.33445566. Bestela, txekez ere ordain dezakezu.

Zure berrien zain, adeitasunez, agur.



Izp.: Maripi Uribarren Arana
Etxejabeen elkarteko presidentea

Itziar Bergara
Etxebabeen elkarteko idazkaria
Garibai kalea, 7-4. A
20500 Arrasate

Arrasaten, 2004ko irailaren 30ean

Andre hori:

Jabetza Horizontaleko Legearen 9.1.i) artikuluan datorrena betetze-ko, jakin ezazu irailaren 20an nire etxebizitza (Garibai kalea, 7-A. B) saldu nuela eta Karmel Bengoa Kortabarria jabetu zela nire etxeaz lehen adierazitako egunean.

Begirunez,

Izp. Eneko Maiztegi Gil



D

Ordaindu gabeko kuotak erreklamatzeko demanda

Bergarako Lehen Auzialdiko Epaitegia
Ariznoa plaza, z/g
20570 Bergara

Ni, Maripi Uribarren Arana (NA zk. 11.222.333.J), irailaren 24an egindako batzarrean hartutako akordioaren arabera, Arrasateko Anboto kaleko 3ko Etxejabeen elkarteko presidentea (ondoan doa ziurtagiria, 1. agiria), epaitegi horretan agertzen naiz eta

ADIERAZTEN DUT

Idatzi honen bidez eta legez dudan ordezkartzaren izenean, auzia jartzen dudala Jon Lopez Amenabarren kontra, gure komunitateari ordaindu ez dizkion kuotak erreklamatzeko, guztira 120 euro. Eta hori hauen arabera:

GERTAKARIAK

- 1.- Jon Lopez Amenabarrek ez ditu ordaindu gure komunitatearen kuotak 2002ko urtarrilaren 1etik, eta horrek esan nahi du 120 euroko zorra duela.
- 2.- Jabeen komunitateak irailaren 24an egindako batzarrean akordio hau hartu zuen gai zerrendaren 4. puntuan: Jon Lopez Amenabarrek zor duen zenbatekoa zehaztea eta horri buruzko agiria egitea (ikus 2. agiria)
- 3.- Aurtengo urriaren 2an helarazi genion zordunari agiri bat zorraren likidazioarekin, Jabetza Horizontaleko Legeak —eta Lege hori berritu zuen apirilaren 6ko 8/1999 Legeak— ezarritako bideetatik helarazi ere (ikus 3. agiria).
- 4.- Jabeen komunitateak, goian aipaturiko batzarrean, erabaki hau hartu zuen (ikus 4. agiria): batetik, auzibidera joz eskatzea zor horren zenbateko osoa, baldin eta, zordunari eskatu eta gero, zor duen guztia kitatzen ez badu; eta bestetik, ahalmena ematea elkarteko presidenteari, dagokion moduan jokatzeko.
- 5.- Zorra onean kobratzen ahalegindu bagara ere, ez dugu kobratzerik lortu. Hori dela eta, epaitegira jo beste biderik ez dugu izan. > >

> >


Horregatik

ESKATZEN DIOT EPAITEGIARI

- Eskaera hau aurkeztutzat emateko.
- Jon Lopez Amenabarren kontra jarritako demanda onartzeko, Arrasateko Anboto kaleko 3ko Etxejabeen komunitatearekin duen 120 euroko zorra ordain dezan.
- Dagozkion tramiteak egin eta gero, errekeritzeko pertsona horri 20 eguneko epean ordain diezagun.
- Horretaz gainera, ohartarazteko zordunari, ordaindu ezean, zorra, horren interesak, prozesuko kostuak eta auzibidez kanpoko gastuak (notarioaren bidez demanda helarazteko izandakoak) ordaintzeko aginduko diozula, guztira 300 euro inguru, alegia. Horren kaltetan gabe, auzibidea amaitu ondoren, gastuen likidazioa egin beharko da.

Berebat, Jabetza Horizontaleko Legeak —lege hori berritzeko apirilaren 6ko 8/1999 Legeak dakarren idazketa berrian— 21. artikuluan jasotakoaren eredura, eskatzen diot zordunaren ondasunen aurreneurritzko bahitura egiteko, hartarako fidantzarik jarri gabe.

Arrasaten, 2004ko urriaren 30ean



Izp.: Mariipi Uribarren Arana
Anboto kaleko 3ko presidentea



4

Ziurtagiriak

- A Etxe saltzailearen zorren egoerari buruzko ziurtagiria



ZIURTAGIRIA

Nik, Iñaki Muxika Goikoleak, Aramaioko Nardeaga kaleko 6ko Etxejabeen elkarteko idazkariak

ADIERAZTEN DUT

Rosa Axpe Mondragonek, Nardeaga kaleko 6-3. B etxebizitzaren jabeak, ziurtagiria eskatu duela, elkarte honekin dituen zorren egoerari buruzkoa. Hori dela eta, joan den azaroaren 12an etxe jabeen komunitateko batzordeak hartutako akordioaren arabera, idatzi honen bidez

ZIURTATZEN DUT


Jabeen elkarte honetan dauzkagun datuak aztertu ondoren — elkarteko administratzailearen balantzeetakoak, alegia—, gaurko egunez Rosa Axpe Mondragonek ez duela zorrik gurekin, ez kuota arruntetan ez gastu berezietan.

Eta hala jasota geratzeko eta Jabetza Horizontaleko Legean datozen ondorioetarako, ziurtagiri hau egin dut.

Aramaion, 2003ko abenduaren 30ean

OI.: Ane Etxezarreta Galdos
Presidentea

Izp.: Iñaki Muxika Goikolea
Idazkaria



5

Errekerimendua

- A Etxe saltzaileak etxe jabeen komunitatearekin dituen zorrei buruzko ziurtagiria eskatzea elkarteko presidenteari



A

Etxe saltzaileak etxe jabeen komunitatearekin dituen zorrei buruzko ziurtagiria eskatzea elkarteko presidenteari

Jon Gartzia Markiegi
Goiko kalea, 1-2. ezk.
Elgeta

Elgetan, 2003ko urriaren 13an

Jaun agurgarri hori:

Zurekin harremanetan jarri naiz, Goiko kalea 1-3. esk. etxebizitzaren jabea naizelako. Hori frogatzen dute salerosketako eskiturek, Jone Furundarena Perez de Arenaza notarioaren aurrean 2003ko irailaren 27an izenpetu nituenak. Eskiturek 12 zenbakia dute eta Bergarako Jabetzaren Erregistroan daude inskribaturik, 2004-5-10ean, 235 liburuko 181. orrian.

Datozen egunotan etxebizitza saltzeko asmoa dut. Hori dela eta, nire etxebizitzak jabeen komunitatearekin dituen zorrei buruzko ziurtagiria egiteko eskatzen dizut, Jabetza Horizontaleko Legeak —berori berritzeko apirilaren 6ko 8/1999 Legeak dakarren idazketa berrian— 9. artikuluan ezartzen duenaren arabera.

Hortaz, bada, adierazten dizut:

- Batetik, ziurtagiria egin beharko duela idazkariak, eskabide hau egin eta gehienez ere zazpi egun naturaleko epean, presidentearen oniritziarekin.
- Bestetik, ziurtagiria atzeratuz gero, zuek izango zaretela sortzen diren kalteen erantzuleak.
- Azkenik, zuek izango zaretela ziurtagirian jasotako datuen zehaztasunaren erantzuleak.

Zure berrien zain, begirunez agur.

Izp.: Haritz Argiñarena Gardoki



6

Balantze ekonomikoa

A Balantze ekonomikoa



2004 URTEKO BALANTZEA**SARRERAK**

Kuotak	57.559,01
Master txartelarekin aurreratua	1.100
Interesak	2,58
Garajeak	43,27
GUZTIRA	58.704,86

GASTUAK

Gasolioa	27.548,30
Iberdrola	2.813,49
Itzulketak	2.502,44
Garbiketak	3.028,10
Ura	1.561,84
Urko (Mantentzea eta konponketak)	13.359,63
Mapfre	4.371,12
Mantentze lanak (Jabier)	1.442,40
Materialak (Bonbillak, kontadoreak...)	208,69
Iturgintza	765,33
Araneta (su itzalgailuak)	219,55
Elkoro	5.603
Eraikitzaileak	1.231,35
Elektrikaria	624,65
Administrazioa	1.637,64
Master txartela (aurreratutakoa)	1.110,57
Udala	29,70
Notarioa	54,84
Bulegoko materiala	5,11
Komisioak eta BEZ	472,76
GUZTIRA	68.590,51

2004 urtealdiko saldoa	(-) 9.886,65
Saldoa 2004-01-01ean	8.904,27
Saldoa 2004-12-21ean	-981,38

7

Errotuluak

A Errotuluak




**EZ SARTU
JABETZA PRIBATUA**

Utzi hemen publizitatea



Eskerrik asko



MESEDEZ, UTZI MOSTRADOREAN PUBLIZITATEA

Eskerrik asko

8

Oharrak

- A Atarikoentzako oharrak
- B Izena emateko orria
- C Kenak idatziz biltzea
- D Berokuntza instalazioaren urteko hustuketa
- E Berokuntza sistema betetzea
- F Igogailua nola erabili

A

Atarikoentzako oharrak

Ohar honen bidez adierazten dizuet datorren martitzenean, hilak 20, Naturgas enpresako teknikariak gure atarian izango direla gas instalazioa aztertzeko. Goizeko 10:00etan hasiko dira lehenengo pisuan eta gorenakora iritsi arte jarraituko dute.

Bergaran, 2004ko urtarrilaren 9an

Bihar, eguena, arropa batzeko kanpaina egingo du Karitas-ek eta horretarako arratsaldeko 6etan pasatuko dira ataritik. Atarian bertan, poltsan sartuta, utzi ditzakezu arropak.

Aretxabaletan, 2004ko otsailaren 28an

Egun bi barru atariko kristalak garbituko dituzte Arrasate Garbiketak enpresakoek. Hortaz, jakizu goizean izango direla atarian.

Eskoriatzan, 2004ko uztailaren 31n

Kalean obra batzuk egin behar dituztela-eta, jakizu datorren astean, hilaren 8an, goizeko 10:00etatik 13:00ak arte ez dugula argirik izango gure etxeetan. Ohartxo hori pasatu digu Iberdrolak.

Bergaran, 2004ko ekainaren 21ean

A

Atarikoentzako oharrak

Jaun/andre hori:

Badakizu 10 urte beteko direla laster etxea egin zenetik eta oraintxe erreklamatu behar ditugula okerrak eta akatsak, apurtu direnak eta antzemandako hutsak. Hortaz, egun hori baino lehenago eskaerak niri pasatzea komeni da.

Oñatin, 2004ko apirilaren 10ean

Garbiketa egiten duen pertsonak adierazi digunez, datorren hilean zapatu eta martitzenetan garbituko ditu atariko eskailerak.

Arrasaten, 2004ko martxoaren 5ean

Orain erabiltzen ari garen antena parabolikoak akats batzuk izan ditu, eta horiek konpondu eta gero aldaketa txiki batzuk ere izan ditugu telebista kateetan. Aurrerantzean, GoitB eta ETB1 33. eta 56. kanaletan ikusiko ditugu.

Eskoriatzan, 2004ko irailaren 7an

B

Izena emateko orria

Sotoko trastelekuren bat erosi nahi baduzu, jarri zure datuak orri honetan:

IZEN-ABIZENA	PISUA ETA LETRA

Behin zerrenda osatuta, bilera egingo dugu, trastelekuak aukeratzeko.

C

Kexak idatziz biltzea

Akatsak konpontzeko eskatzea Etxeberri enpresari

Joan den otsailaren 18an urbanizazioko atarietako arduradunen bilera egin eta erabaki genuen bakoitzak bere etxebizitzan edo atarian antzeman dituen arazoen berri idatziz ematea, kexa guztiak batera aurkezteko Etxeberri enpresari. Horregatik, idatzi bat sartu dugu postontzietan, antzemanda-ko akatsen berri eman dezan bakoitzak. Sartu orri hori atari-ko arduradunaren postontzian, otsailaren 25a baino lehen.

Eskerrik asko,

Urbanizazioko administratzailea

BEROKUNTZA INSTALAZIOAREN URTEKO HUSTUKETA

Urtero bezala, aurten ere, berokuntza instalazioa hustuko dugu, hainbat konponketa egin eta instalazioak berritzeko. Ekainaren 16an, goizeko 9:00etan, hustuko dugu instalazioa eta uztailaren 9an bete berriro, goizeko 9etan.

Hortaz, bada, aukera ona da norbaitek aldi horretan bere etxeko berokuntza sisteman egin beharrekoko konponketak egiteko. Adibidez, erradiadore bakoitzaren pasoko giltza biak, hondatuta egonez gero edo zaharrak izanez gero, aldatzeko gomendatzen dizuegu.

Gogora ekarri nahi dizuegu, adierazitako egunetan barik beste egunen baten hustu nahi izanez gero, Administrazioari jakinarazi beharko diozuela, eta 150 euro ordaindu.

Aramaion, 2004ko ekainaren 10ean

Batzordea

E

Berokuntza sistema betetzea

OHARRA

Datorren irailaren 4an berokuntza sistemaren zirkuitua beteko dugu. Hori dela eta, etxean obrarik egin baduzu, berokuntza instalazioa zaintzea komeni da, zer gerta ere.

Aramaion, 2004ko irailaren leian

Batzordea

OHARRA

Joan den asteburuan, igogailua gelditu egin zen solairu artean, pertsona gehiegi sartzeagatik (5). Berriro horrelakorik ez gertatzeko, segurtasun arauak betetzeko eskatzen dizuegu, eta ez sartzeko 4 lagun baino gehiago.

Aramaion, 2004ko otsailaren 7an

Batzordea

9

Araudiak

A Barne araudia

B Estatutuak



Jabetza Horizontaleko Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera eta jabeen komunitatearen estatutuekin bat etorritik, hona hemen Barne Araudi hau:

1.- Debekatuta dago igogailuan ontziak eta paketeak igotzea edo jaistea, kabina hondatu edo zikindu dezaketen produktak izanez gero, bai eta animaliak ere. Horretarako, karga jasogailua erabiliko da.

Hamabi urtetik beherakoek ezingo dute erabili ez igogailua ez karga jasogailua, pertsona heldu batekin ez badoaz.

Ezingo da ibili igogailuan edo karga jasogailuan kabinatan adierazten den baino pertsona gehiago, ez eta adierazten den baino pisu handiagorik ere.

2.- Erabat debekatuta dago:

a) Arropa eskegitzea kanpoaldean, bai eta gauzak jartzea ere balkoietan eta ataketan. Apaingarri txikiak eta loreontziak baino ezin dira jarri, betiere ondo eutsita badaude eta ureztatzean itoginik ez badago.

Eraikinaren erdiko patioetara eta atzealdeko banako terrazetara ematen duten leiho partikularretan debekaturik dago objektuak jartzea, zikinak-eta botatzea, txistua botatzea, tantako ureztatzea eta arropa bustia zabaltzea.



A

Barne araudia

>>

b) Objektuak edo kartelak fatxadan jartzea, eraikinaren itxura arkitektonikoan aldaketarik sortzen badute. Merkataritza lokalen jabeek edo errentariek jarri ahal izanango dituzte beren jarduerari buruzko errotuluak.

c) Bide publikora ematen duten balkoiak eta atakak galeriez estaltzea, nahiz eta beirateez estali.

3. Jaiegun berezietan edo ohiko ospakizun egunetan, kontuz ibili behar da zaratarik ez ateratzeko, beste bizilagunei kalterik ez egiteko. Arreta bera izango da bozgorailuen bolumenarekin.

4. Eraikineko berokuntza zentrala ez da egutegi jakin baten arabera erabiliko, baizik eta eguraldiaren arabera.

Guztiok gutxiago gastatzeko, ez da erabiliko udaberriko azken hilabeteetan, udan eta udazkeneko lehen hilabeteetan.

Berokuntza sistema, erabiltzen denean, arratsaldeko 4etan piztuko da eta gaueko 10etan itzali.

5. Araudi honen aldaketak etxejabeen batzarrak onartu beharko ditu.

Oñatin, 2004ko uztailaren 7an

Batzordea

1. artikulua

Kode Zibileko 396. artikuluan aipatzen direnez gain, atariko guztien elementutzat jo behar dira bereziki hauek: 1) inmieblea dagoen lekuaren zorupea; 2) hormak, fatxadak eta tabikeak, betiere helburutzat badute apartamentuak bereiztea; 3) atezainaren etxebizitzako gelak; 4) inmiebleko ataria, atarte edo behebarria; 5) terrazak; 6) elektrizitate instalazioak, ur korrontearanak, telefonoarenak eta berokuntza zentralarenak, horien osagarriekin; 7) zaborteziak; 8) tximiniak eta tximistorratzak; 9) eraikina sartzeko atea; 10) kontagailuen lekuak eta zerbitzu orokortako makinak gordetzeko lekuak; 11) igogailuen babes hesiak; 12) solairuetako egitura; 13) solairu bakoitzari eusteko habeak; 14) fatxada, atari eta guztienak diren gainerako elementuetako apaindura eta dekorazio piezak; 15) zorueta eta sabaizunetako obra nagusia; 16) arropa esekitokia; 17) lurpeko babeslekuak; 18) hustubideak.

Halaber, guztienak izango dira jabeek erabiltzeko eta gozatzeko balio duten elementu guztiak eta, Legez edo itunez, alde pribatiboaren osagarri diren elementuak.

2. artikulua

Garajeari buruzkoa. Beheko solairuan dagoen lokala garajetarako izango da, jabeek bakarrik erabiltzeko, horregatik ezer ordaindu barik, nahiz eta erabilera hori Barne Araudiaren gai espezifikokoak diren arauak erregulatu behar duten. Hortaz, printzipioz, ezingo zaio errentan eman beste bati, ezta beste batzuek erabili ere, nahiz eta jabeen gehiengoak horrela erabaki.

Aho batez hartutako akordioaren ondorioz beheko solairuan dagoen garajea (edo guztiena den beste elementu bat) errentan emanaz gero beste bati edo ustiatu egiten bada, sortzen dituen etekinak nahiz gastuak, banatu egingo dira inmiebleko jabeen artean, bakoitzaren partaide kuartaren arabera (edo « inmiebleko jabe guztien artean berdina»). Ustiatze hori egiteko zerbitzuren bat behar izanez gero edo pertsonaren bat enplegatuz gero, administratzaileak aurrekontua egingo du eta Batzarrari proposatuko dio zeinek egin hori, Batzarrak onar dezan. Errentan ema-

>>

B

Estatutuak

>>

tea erabakiz gero, presidenteak sinatu beharko du kontratua, jabe-komunitatearen ordezkaria baita, baina errentan hartzen duen pertsonak Batzarraren oniritzia izan beharko du, gehiengoz erabakita.

3. artikulua

Indarrean dagoen Jabetza Horizontaleko Legean berariaz agintzen dena berretsiz, guztienak diren elementuak ezin dira inola ere zatibanatu. Saldu, kargatu edo bahitu, berriz, egin daitezke, alde pribatiboarekin batera, honen eranskin banaezinak baitira. Arau hori ezarriko zaio gargetarako den beheko solairuko lokalari ere, bai eta traste zaharrak gorde eta uzteko balio duten gelei ere. Hala ere, jabetza deseginez gero, zatitu ahal izango lirateke.

4. artikulua

Berokuntza zentrala urriaren 15etik hurrengo urteko martxoaren 31 arte piztuko da, eta arratsaldeko 4:00etatik gaueko 10:00ak arte; administratzaileak kontrolatuko du hori.

5. artikulua

Inork ezingo du egin konponketa obrarik edo bestelakorik guztienak diren elementuetan, Jabe-komunitatearen baimenik gabe. Hala ere, premiazko kasuetan, jabe batek egin ahal izango ditu, nahiz eta horretarako baimenik ez izan, administratzailearengana edo elkarteko presidentearengana jotzerik ez duenean, edota presidenteak obra horiek eginarazten ez dituenean.

6. artikulua

Etxejabe guztiak erabili ahal izango dituzte guztienak diren elementuak, nahiz eta gehiengoz erregulatu ahal izango den nola erabili. Halakoetan, Barne Araudian jasotako irizpideei jarraituko zaie.

7. artikulua

Egin daitezkeen berrikuntzei buruz, eta Legearen 10. artikulua xedatzen duena argitzeko, hau ezartzen da:

a) Inmueblearen kontserbazio eta bizigarritasunerako behar diren berrikuntzak ezarri ahal izango dira. Horretarako nahikoa da edozein jabe eskatzea eta ez da beharko komunitatearen akordiorik. Hala ere, komunitateari adierazi beharko zaio berrikuntzak egiteko asmoa dagoela, egiteko moduz dagozkion neurriak har ditzan.

b) Inmueblearen kontserbazio eta bizigarritasunerako premiarik gabe berrikuntzak egiten badira, ezingo da aldatu inmueblearen itxura arkitonikoa eta jabeen batzarrak erabaki beharko du gehiengo, obra horiek nola egin. Berritu eta gero, erabilera arautuko dute berrikuntza egin duten jabeek, egin nahi ez zutenen iritzia kontuan hartu barik, haiek onartu arte eta dagokien zati proportzionala ordaindu arte.

c) Aurreko atalean aipatzen diren berrikuntzak direla-eta, kobratu ahal izango zaizkie obra egin nahi izan ez duten jabeek —horren kuota ez bada gastu arrunten hiru hilekoren zenbatekoa baino handiagoa—, eta instalazio eta mantentze gastuak ordaintzen lagundu beharko dute, nahiz eta ez izan horietaz baliatzeko aukerarik. Urtean horrelako berrikuntza bat baino ezingo da egin.

d) Berritze horren ondorioz, jabeak ez erabiltzeko moduan geratzen bada eraikinaren zati bat, ezingo da egin berritze lan hori. Hala ere, zati bat denez erabiltzerik ez dagoena, garrantzitsua izan beharko du horrek, adibidez, ezerosotasun bat sortzen denean bezalaxe. Horrelako kasuetan Jabe-komunitateak izango du ahalmena gehiengo erabakitzeko.

8. artikulua

Esleitu zaion etxebizitzaren jabetza osoa izango du jabe bakoitzak, Legean ezartzen diren mugekin. Jabetza pribatibo horretan sartuko dira zoladura, balkoiak, armairuak, sabaizuna eta instalazioak, bai eta maila berean dauden terrazak ere, baina inoiz ez lurzoruetako eta sabaizuneko obra nagusia.

9. artikulua

Legeak ezartzen dituen mugez gain, jabeak ezingo du:

- a) Objekturik, kartelik eta abar fatxadan jarri, eraikineko itxura arkitektonikoa aldatzen badu.
- b) Balkoirik galeriaz estali, nahiz eta beiratez egin, itxura aldaketa hori ez sortzeko.
- c) Guztienak diren leketan ezer aldatu, adibidez, erradiadore gehiago jarri.

10. artikulua

Jabe guztiek izango dute aukera beren alde pribatiboari uko egiteko, guztienak diren elementuetan kargetatik eta gainerako gastuetatik libra-

>>

B

Estatutuak

> > tzeko; baina uko egite hori gainerako jabeek onartu behar dute, eta bakoitzaren kuotaren proportzioan subrogatuko dute, edo, gutxienez, haietako batek, obligazioak eta gainerako kargak onartzen baditu.

11. artikulua

Guztienak diren elementuetatik sortzen diren gastuetan eta legeak ezarritako gainerako gastuetan (zerbitzuak, kargak eta banaka jarri ezin diren erantzukizunak, erreserba fondoaren dotazioa) parte hartzeko, partaide kuotak hartuko dira, Titulu Eratzailean ezarrita daudenak. Horien arabera banatu beharko dira sortzen diren gastuak, berdin diolarik zein den horien kausa.

12. artikulua

Partaide kuotak ezingo dira aldatu, bidezko arrazoirik gabe, behintzat. Adibidez, ezingo da etxebizitza gehiago eraiki edo ezingo dira daudenak zatitu, edo berritu, eta ezingo da handitu edo gutxitu etxearen edukiera.

13. artikulua

Adierazitako arrazoiengatik edo antzeko beste batzuegatik partaide kuotak aldatu behar izanez gero, Batzar berezia egingo da, aldaketa hori aztertzeko. Eta akordiorik lortzen ez bada, arbitrajean erabakiko da auzia, eta jauna/andrea izendatuko dute arbitro; horrek, perituaren txostena ikusi eta gero, ekitatez erabaki beharko du.

14. artikulua

Jabe guztiek izango dute eskubidea, inmueblea altuago egiteko, sakonago egiteko, eta zeharretara solairu edo etxebizitza berriak gehitzeko. Jabe horiek aho batez bakarrik jardungo dute. Eraiki beharreko solairuei dagokienez, udal ordenantzetan ezarritakoa bete beharko da, eta ezingo dira obrak egin, baldin eta arriskuan jartzen bada eraikinaren egonkortasuna edo elementu arkitektonikoak eta instalazio orokorrak aldatzen badira. Arau hauek berauek balio dute, eskubide hori jabetzaren Titulu Eratzailean erreserbatu bada.

15. artikulua

Etxebizitza bat saldu behar denean, lehentasunez erosteko eskubidea erabili ahal izango du aldameneko jabeak, eta horretarako 30 eguneko epea izango du, saltzaileak era fede-emaileaz jakinarazi ondoren etxebizitza saldu edo utzi egingo duela, zer prezio eskaintzen duen eta eskual-

datzearen eta eroslearen oinarritzko baldintzak. Lehentasunez erosteko jabe bat baino gehiago egonez gero baldintza berdinetan, saltzaileak aukeratu ahal izango du eroslea.

16. artikulua

Halaber, debekatuta dago makinak edo motorrak jartzea, etxebizitza batean ohikoak diren makinak edo motorrak ez badira, sortzen duten zarataz ingurukoak gogaitzen badituzte eta gainerako etxebizitzetan edo guztienak diren elementuetan kalteak sortzen badituzte.

17. artikulua

Titularrak bere lanbidea, ogibidea edo eskulangintza zertu ahal izango du bere etxebizitzan, betiere zaratarik egiten ez badu, usainik sortzen ez badu edo auzokoak gogaitzen ez baditu.

18. artikulua

Etxebizitza bakoitzaren jabeak errentan eman ahal izango dio berak nahi duenari, betiere bertan bizitzeko baldin bada. Hala ere, ezingo dio errentan eman aldi berean familia batean normala dena baino jende-kopuru handiagoari, ezta etxebizitza zatitu ere gelaka, benetako komertzio bihurtuz.

Jabe-komunitateak errentariaren kontra egin ahal izango du, honen aurrekari ez-moral edo delituzkoak kontuan izan eta halakoak egiten jarraituko duen susmo oinarrituak baldin baditu.

19. artikulua

Guztienak diren elementuak erabiltzearen ondorioz sortzen diren gastuak honela banatuko dira: Titulu Eratzailean titular bakoitzari ezarritako partaide kuotaren proportzioan.

20. artikulua

Gastu horietan titular bakoitzari dagokion proportzioa, urteko batzarrean onartutako aurrekontuaren arabera, urte bakoitzaren lehen hamabost egunetan aldez aurretik ordainduko da, banketxean dagoen kontu korrontean. Ordaintzen ez duenari administratzaileak eskatuko dio hori egiteko, ordaindu ez duen hil bakoitzeko %20ko erreklama gehituz zigor klausula moduan, bidezkoa izan litekeen edozein erreklamazioz gain.



B

Estatutuak

>>

21. artikulua

Ordaindutako kuotekin fondo bat osatuko da, administrazio, konponketa eta kontserbazioa dela-eta sortzen diren gastuak ordaintzeko.

Horretarako, kontu korronte bat irekiko da Aramaixo banketxean, eta horko dirua erabili ahal izango du administratzaileak halakoak ordaintzeko, jabeen elkarteko presidentearen oniritziarekin.

22. artikulua

Ekarpen horretaz gain, jabeak beharturik daude sortzen diren gastu bereziak ordaintzera, eta aurrekontua batzarrak onartu eta gero, dagokien zatia ordaindu beharko dute, administratzaileak errekerimendua egin ondorengo 20 egunetan.

23. artikulua

Jabeek, maizterrek edo bataren edo bestearen mendeko pertsonak axolagabekeriak jokatu dutelako instalazioetan edozein matxura edo buxadura izanez gero, jabearen kontura joango da konponketa, eta berehala konpondu beharko du. Administratzaileak ahalmena du, batzarrera jo barik, konponketa agintzeko jabearen kontura, baldin eta honek, errekeritu eta gero, konpontzen ez badu.

24. artikulua

Jabe jakin batzuek bakarrik erabiltzen dituzten terrazak, eskailerak eta gainerako elementuak kontserbatu edo konpontzean sortzen diren gastuak, jabe horiek bakarrik ordainduko dituzte, nahiz eta denen jabetza-koak izan. Zer berezietan, arau orokorrak erabiliko dira.

25. artikulua

Inmueble osoaren gaineko aseguru bat ezarriko da, Jabe-komunitatearen kontura, eta sute, leherketa, uholde edo beste arrisku batzuk sartuko dira. Aseguru hori presidenteak hitzartuko du, Jabe-komunitatearen ize-nean, eta libre izango da hori egiteko berak egoki irizitako edozein aseguru etxerekin, betiere nahiko kaudimen izanez gero etxe horrek. Jabe bakoitzaren partaide kuotaren proportzioan banatuko dira primak eta 24. artikuluan datorren eran ordainduko dituzte.

26. artikulua

Ezbehar edo kalteren bat izanez gero, jasotzen den kalte-ordaina inmieblea berreraikitzeke erabiliko da edo, hala badagokio, suntsitutako zatia egiteko, eta sobran geratzen den kopurua jabeen artean banatuko da, kuotaren proportzioan. Ordaindutako kalte-ordaina ez bada nahikoa berreraikuntzaren gastuak estaltzeko, titularrek jarri beharko dute falta dena, kuotaren proportzioan.

27. artikulua

Titular batek edozein zerbitzu jarri edo zerbait berri duela, berdin dio Jabe-komunitatearen baimenaz edo barik egin, inmieblearen aseguru prima handitu egin behar bada, alde hori titular horrek berorrek ordaindu beharko du. Edozelan ere, Jabe-komunitateak aukera du jabe horren aurka jotzeko.

28. artikulua

Jabe bakoitzak kontribuzioak, zergak eta arbitrioak, edozein klasetakoak, ordainduko ditu, betiere bere zati pribatiboaren gainekoak badira. Ordaindu beharrekoa guztiena izanez gero, zatitzeko eska dezake eta dagokiona kobratzeko.

29. artikulua

Guztienak diren zerbitzuak eta elementuak jarri, maneiatu eta erabiltzeagatik sortu daitekeen erantzukizun zibil subsidiarioa banatu egingo da jabeen artean, partaide kuotaren arabera. Hala ere, erantzukizun subsidiario hori onartu baino lehen, eztabaidatu egin beharko da horren garrantziaz, hartarako presidentek edo, bestela, edozein jabe erantzukizunak argi eta garbi zehazteko deituko duen batzarrean.

30. artikulua

Presidenteari buruz. Legeak ematen dizkion ordezkaritza-egitekoak bakarrik beteko ditu presidentek. Horiez aparte, abokatua eta prokuradorea izendatzeko ahalmena ere ematen zaio bereziki Jabe-komunitatearen onerako behar den defentsan, baldin eta kasuaren presagatik batzarrean deituz ez badago.

31. artikulua

Presidenteordeari buruz. Presidentek bileretara joaterik ez duenean edo



B

Estatutuak

>>

gai batean bera interesduna denean, horren ordezeko izateko batzarrak, gehiengoz, presidenteordea izendatuko du jabeen artean, eta presidentearen ahalmen berberak izango ditu.

32. artikulua

Administratzaileari buruz. Behar ez den gasturik ez egiteko, administratzaileak, Legearen arabera bereak dituen egitekoen gain, idazkariarenak ere beteko ditu. Kargua behar bezala eta leial betetzeko behar dena dakien pertsona bat izendatu behar da nahitaez, hau da, dagokion elkar-gokoa den eta dagokion kontribuzioa ordaintzen duen administratzailea. Administrazio-lan horretarako ordainsari moduan euroko kuota finkatuko da, jabe bakoitzari kobratzeko, eta kopuru hori Estatutu haue-tako 24. artikuluan esaten den eran ordainduko da.

33. artikulua

Batzarrak noiz egin. Ohiko batzarrak urte bakoitzeko urtarrilean egingo dira nahitaez. Aurrez dagokion deialdia egingo da, Jabetza Horizontaleko Legean xedatutakoaren arabera.

34. artikulua

Administrazio Kontseiluari buruz. Jabe-komunitatearen administrazioari eta gobernari eragiten dien guztia ahalik eta azkarren erabakitzeko, administrazio kontseilua aukeratu dezake batzarrak; presidentek eta bi kontseilarik osatuko dute, eta batzorde iraunkor moduan jardungo du. Presazko gaiak baino ez ditu erabakiko batzordeak, baldin eta batzar orokorrera deitzeko astirik ez badago.

35. artikulua

Lurralde mendekotasuna. Izaera juridikzionalako auziak erabakitzeko, jabeek berariaz onartzen dute finka dagoen herri/hiriko epaitegien eta auzitegien mende jartzea.

36. artikulua

Arbitraje mendekotasuna. Maizterra botatzeko edo etxebizitzaren erabilera kentzeko prozedurak izan ezik —Jabetza Horizontaleko Legearen 19. artiku-luak aipatzen dituenak— eta Lege horrek berorrek 16. artikuluan 2 eta 3. zen-bakietan erregulatutako ekitatezko beste batzuk izan ezik, ekitatezko arbitrajea-ren epaiaren mende jarriko dira jabeen artean sortzen diren beste auzi guztiak.




10

Hiztegia

A Euskara-Gaztelania hiztegia

B Gaztelania-Euskara hiztegia



A

Euskara-Gaztelania hiztegia

> Adeitasunez, begirunez	Atentamente
> Agiri	Documento
> Ahalmena eman	Autorizar, facultar
> Atari, atarte, bebarru	Portal
> Atariko, bizilagun, auzo, auzotar	Vecino
> Aurrerakin	Anticipo
> Auzia jarri	Interponer demanda
> Barne araudi	Reglamento interno
> Batzar Nagusi berezi	Asamblea General extraordinaria
> Berokuntza sistema	Sistema de calefacción
> Bidali	Remitir
> Bilera akta	Acta de sesión
> Bilera dei	Convocatoria de reunión
> Egiatzatu	Acreditar
> Enpresa sustatzaile	Empresa promotora
> Eraikin	Edificio
> Erantzukizun zibil	Responsabilidad civil
> Erregelamendu	Reglamento
> Eta hala jasota geratzeko...	Y para que así conste...
> Etorritakoak	Asistentes
> Etxabe	Bajo
> Etxe saltzaile	Propietario vendedor
> Etxejabe	Copropietarios
> Ez sartu	Prohibido el paso
> Gai zerrenda	Orden del día
> Gehiengoz	Por mayoría
> Guztienak diren elementuak	Elementos comunes

A

Euskara-Gaztelania hiztegia

> IFZ(identifikazio fiskaleko zenbakia)	CIF(código de identificación fiscal)
> Izendatu	Nombrar, designar
> Jabe	Propietaria/o
> Jabekide	Copropietario
> Jabetza Horizontaleko Lege	Ley de Propiedad Horizontal
> Jakinaraztekoak	Notificaciones
> Kalte-ordain	indemnización
> Kitatu	Liquidar
> Lehen auzialdiko epaitegi	Juzgado de primera instancia
> Lehenasunez erosteko eskubide	Derecho de tanteo
> Merkataritza lokal	Local comercial
> Ohar	Nota, observación
> Ohartarazi	advertir
> Ohiko Batzar Nagusi	Asamblea General ordinaria
> Ordainagiri	recibo
> Partaide kuota	Cuota de participación
> Salerosketa	Compraventa
> Sinadura	Firma
> Zenbateko	Importe
> Ziurtagiri	Certificado, certificación
> Zor	Deuda
> Zordun	deudor
> Zuzendaritza batzordea	Junta Rectora

> Acreditar	Egiatzatu
> Acta de sesión	Bilera akta
> Advertir	Ohartarazi
> Anticipo	Aurrerakin
> Asamblea General extraordinaria	Batzar Nagusi berezi
> Asamblea General ordinaria	Ohiko Batzar Nagusi
> Asistentes	Etorritakoak
> Atentamente	Adeitasunez, begirunez
> Autorizar, facultar	Ahalmena eman
> Bajo	Etxabe
> Certificado, certificación	Ziurtagiri
> CIF(código de identificación fiscal)	IFZ(identifikazio fiskaleko zenbakia)
> Cuota de participación	Partaide kuota
> Compraventa	Salerosketa
> Convocatoria de reunión	Bilera dei
> Copropietario	Jabekide
> Copropietarios	Etxejabe
> Derecho de tanteo	Lehentasunez erosteko eskubide
> Deuda	Zor
> Deudor	Zordun
> Documento	Agiri
> Edificio	Eraikin
> Elementos comunes	Guztienak diren elementuak
> Empresa promotora	Enpresa sustatzaile
> Firma	Sinadura
> Importe	Zenbateko
> Indemnización	Kalte-ordain

B

Gaztelania-Euskara Hiztegia

> Interponer demanda	Auzia jarri
> Junta Rectora	Zuzendaritza batzordea
> Juzgado de primera instancia	Lehen auzialdiko epaitegi
> Ley de Propiedad Horizontal	Jabetza Horizontaleko Lege
> Liquidar	Kitatu
> Local comercial	Merkataritza lokal
> Notificaciones	Jakinaraztekoak
> Nombrar, designar	Izendatu
> Nota, observación	Ohar
> Orden del día	Gai zerrenda
> Por mayoría	Gehiengoz
> Portal	Atari, atarte, bebarru
> Prohibido el paso	Ez sartu
> Propietaria/o	Jabe
> Propietario vendedor	Etxe saltzaile
> Recibo	Ordainagiri
> Reglamento	Erregelamendu
> Reglamento interno	Barne araudi
> Remitir	Bidali
> Responsabilidad civil	Erantzukizun zibil
> Sistema de calefacción	Berokuntza sistema
> Vecino	Atariko, bizilagun, auzo, auzotar
> Y para que así conste...	Eta hala jasota geratzeko...

Argitaratzaileak: *Debagoieneko Mankomunitatea, eta Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñatiko udalak.*

Tirada: *3.700 ale.*

Diseinua eta maketazioa: *AZK Taldea.*

Fotomekanika: *Estudios Durero.*

Inprimatzailea: *A.G. ELKAR, S. COOP.*

Legezko gordailua:

